

rra, ez gutxitzat hartu profezia dohairik. Aztertu gauza guztiak eta hartu on dana. Zaindu zeuen buruak edoze-lango gaizakeriatik.

JAUNAK ESANA

(Isilunea, hausnarketarako; gero, halan nahi bada, Hitzak adie-razotakoa komentatu danon artean. Oraingoan, oso egokia litzateke eskerrak emotea, elizbarrutian prozesu honetan parte hartzen daben talde eta lagun guztiak gogoan hartuz)

Otoitza

Jesus, ez dozu eskurik;
geure eskuak bakarrik dituzu,
mundu zuzena eraikitzeko.

Jesus, ez dozu oinik;
geure oinak bakarrik dituzu,
zapalduak askatasun bidean jartzeko.

Jesus, ez dozu ezpainik;
geure ezpainak baino ez dituzu,
behartsuei Barri Ona zabaltzeko.

Jesus, ez dozu bitartekorik;
geure ekintza baino ez dozu,
gizon-emakume guztiak anai-arrebak izan daitezana.

Jesus, zure Ebanjelioa geu gara,
jendeak irakurri daiken Ebanjelio bakarra,
geure bizimodua eraginkorra bada.

Jesus, zintzo jokatzeko eta on egiteko,
emoiguzu zure gogo bizia.

(Bidelagun dogun Andra Mariaren kanta batekin amaitu)

4. GIDOIA – ZER EGIN, ZER ITXI, ZER AL-DATU? OIHARTZUNAK

Eleizbarrutiko bereizketaren helburua

Otoitz eta irekitasunezko giroan, antzeman daigun alkarregaz zelan hitz egiten deuskun Jaungoikoak bizi dogun garai honetan, zelan agertzera emoten jakun gizarteko eta Eleizako inguruabar honetan eta **zelan erantzun deikeogun, hankak lurrean doguzala**, gure aukerak kontuan hartuta, bat egiteko dei horri.

Bidearen erdia egin ondoren...

- Bereizmen prozesuak harrera ona izan dau elizbarrutian. Guztira, 240 talde baino gehiago dira honetan dabilzanak, 2.000tik gora lagunekin (urtarrilaren erdialdeko datuak dira). Emon zuen izenak, mesedez, oraindik inskripzioa bete ez dozuena. Martxoan, lehenengo itaunke-tei emondako erantzunen laburpena eskuratzeko era izango da.
- Toki batzuetan, bereizmena egiten dihardue, itaunei zehatz-mehatz jarraitu barik. Gehienetan, egoeraren azterketa oraintsu egin dabelako. Taldeon lana batzeko bi-deak bilatuko dira.
- Bidea bera da oso garrantzitsua eta ez da presaz bete behar. Baina gogoan izan behar da, urte pastoral bat erabagi genduala horretarako. Hasiara (izenak emotea eta lehenengo erantzunak bialtzea) astiro samar joan da. Bereizmena ondorengo programazioarekin estu lotuta doala kontutan hartuz, bereizmenaren ibilbidea maiatze-rako amaitzea komeni jaku.

tzen denik, bere bizitzako aukerek ardura beste arlo batzuetan jartzea eskatzen diotela eta. Aitzaki hau sarritan ikusten da inguru akademikoetan, enpresario edo profesionalen artean, eta baita eliz inguruetan ere. Oro har, laikoen bokazio eta misio berezia munduko errealitatea eraldatzean dagoela esan badaiteke ere, giza ekintza osoa Ebanjelioak eraldatuta gerta dadin, halere inor ere ezin daiteke pobreen eta justizia sozialaren ardura izate-tik kanpo sentitu (201).

OTOITZALDIRAKO PROPOSAMENA

Sarrera

Elizbarrutian aurrera doan bereizmen prozesuaren erdian, gure gizarte eta eliz egoera itxaropenez ikusi eta aztertu ondoren, otoitz egitera gatoz. Jesukristogan agertu jakun Jainkoaren argia behar dogu, talde honek eta elizbarruti osoak ebanjelizatzeko bide barriak bilatu eta aurkitu ahal izan daizan. Jainkoaren Espirituak argi egin daigula ibilbide honetan. Sartu gaitезan otoitz giroan, ondorengo himnoa abestuz (irakurritz).

Himnoa

Eraikia dago, eraikiz dijoa
denok inguratzen gaituen hiria;
geu gaitu hiriak bere osagarri,
funtsetan darama gizonon antsia.

Bizitza bat bera daukagu gizonok,
sendo bezainbat hor gaituzu kolokan;
bizi dugu kezkak duen gazi-geza,
bakearen alde gabiltza borrokan.

- Beste modu batera ere banatu daitezke gidoiak: lehenengo ekitaldian, lau arloetako lehen puntuak landu (egin, itxi, aldatu), eta bigarren ekitaldirako itxi lau arloetan landutakoak sortuazotako oihartzunak.

- Oso komenigarria da aurreko ekitaldietan agertutako **azpimarra nagusiak gogora ekartzea**, gure egia ezagutzeko: nortzuk garan, zelan gagozan, norengana jotzen dogun, zelan ikusten dogun gure etorkizuna.

- Ebanjelizatze Egitasmo honetan, **abian dagoan Eliza-ren** aldeko aukera egin dau elizbarrutiak: abian **ertzetara** (solidaritatea), **Jainkoarekin bat** egitera (espiritualitatea) eta **gure artean** alkartzera (eliz komunioa). Gidoi honetatik hasita, zerumuga horretarantz jo nahi da.

- **Ekitaldiaren ibilbidea:**

- Orain arte agertutako azpimarrak batu eta gogora ekartzea.
- Gidoiaren aurkezpena
- *Evangelii gaudium* idazkiko atalen irakurketa.
- Erantzunak alkartzea
- Alkarrizketa eta azalpenak
- Otoitzaldia
- Batzarraren ebaluaketa

- ***Erantzunak ahalik eta bizkorren bialtzea komeni da, gidoi bietakoak batera, azkeneko gidioa (6.) sasoiz prestatu ahal izateko.***

- ***2. eta 3. gidioen erantzunak bialtzeko epea: urtarri-laren azkena. Eta 4. eta 5.aren erantzunak batera bialtzeko: martxoaren azkena.***

- Konkretatzen joan ahala, norbere inguruari (parrokiari, pastoral barrutiari, ikastetxeari, alkarteari...) emon behar jako lehentasuna, gero hortik abiatuta, elizbarrutirako proposamenak egiteko. *Beste inork* egin beharko leukena esan aurretik, *norberak edo geuk* egin daikeguna aitatzea komeni da.

- Bereizmena elizbarruti osoaren onerako da, baina oso mesedegarria da batez ere prozesuan parte hartzen dabene talde eta taldekideentzat. Euron ahalegina txalotzekoa eta eskertzekoa da, eta, era berean, guztiontzat pozgarria. Era berean, eskerrak emoten deustueguz agertu deuskuzuezan barri, komentario eta sujerentziakaitik.

Oharrak

- Gidoi hau (4.) eta hurrengoa (5.) batera doaz. Egitura berbera dabe. Elizaren lau zeregin nagusiak proposatzen dira gogoeta konkretatzeko: **iragarpena**, **liturgia**, **zerbitzua** eta **alkarte bizi** edo komunioa. Gidoi bakoitzean pare bat proposatzen dira. Bosgarren gidioan, **azpiegitura** ere aitatzen da (sakristiako zerbitzua, eliza zaintzea, ekonomia), nahiz eta gehienbat parrokiatarako izan.

- Hemen aurkezten danez, gidoi bakoitza **pare bat orduko** ekitaldi baterako pentsatuta dago. Hau da, normalean baino luzetxoagoa, behar bada. Moderatzaileak hori kontuan eukitea komeni da.

- Arlo bakoitzean bereiztu egin behar dira **alkarri entzutea** (lehenengo puntua: egin, itxi, aldatu) eta entzundakoaren **oihartzunak** (bigarren puntua: bakea, bildurrak...). Bien artean **tartetxo bat** egitea komeni da.

Bai ote hiririk heriorik gabe?
Eta gizarterik ilunperik gabe?
Eguzki-argirik beharko ez duen
Zorion-hiri bat sortzerik bai ote?

Jaungoikoak dio, gizonen artean,
hona etxola Nik, herritar nakien.
Txukatuko diet negar-malko oro,
herio saminik ez dute izanen.

Hiri berriaren oinarri Kristo da.
Eraiki dezala gure gizartean
Jerusalen berri, “bakearen hiri”,
elkartasunezko maitasun betean.

Irakurgaia (1 Tes 5,12-21)

Paulo apostoluak kristauak alkartean zaindu beharreko jarrera nagusiak aitatzen ditu bere idaztiaren amaieran. Helburua hau da: alkartea Jainkoaren Erreinuaren ezaugarri bizia izan daitela.

Senideok: Alkarte-buru dituzuenei, zuen artean hainbeste lan egin eta laguntzen deusuei, begiramena izateko eskatzen deusuegu Jaunaren izenean. Adierazo eurei onespren eta maitasunik handiena, egiten dabengaitik. Bizi bakean alkarrekin.

Mesedez, senideok: lagundu oker dabilzaneiei, emon adore bihozgabetuei, eutsi makalei, izan eroapena guztiekin. Ez itzuli inori gaitzik gaitz orde eta saiatu zaiteze beti alkarri eta danei ondo egiten.

Zagoze beti pozik. Egin otoitz aspertu barik. Emon eskerak beti, Jainkoak horixe eskatzen deusue eta, Kristo Jesusenak zarienez gero. Ez amatatu Espirituaren inda-

ITAUNAK

Orain arte aztertutakoa aurrean dogula eta Egitasmoaren helburua (periferietara, Jainkoaren bidera eta alkarren bidera urtetzea) kontuan izanik:

1. IRAGARPENEAN

(Katekesia, Kristau Sarbidea, erlijio irakaskuntza, homilia, formazioa, hurbiltasuna, Jesukristo beren-beregi iragartzea, fedea transmititzea, harrera, alkartean sartzeko gonbita...)

• **Zein da, nire ustez, Jainkoaren deia niretzat, guretzat, gure alkartearentzat, gure eliz errealitatearentzat?**

- **Zer egin barririk gure inguruan?**
- **Zer aldatu?**
- **Zer itxi alde batera?**
- **Eta elizbarrutian?**

• **Aurrekoetatik zerk sortzen dau bakea niregan eta zerk jartzen nau bildurti edo urduri?**

2. ZERBITZUAN

(Solidaritza maila, beharizanen ezagutza, anaitasunerako formazioa, laguntza eta salaketa ekintzak, Caritas, misioak, osasun pastoraltza, honetarako bokazioa daben alkarreak eta mugimenduak, formazio soziala, eraldatzeko konpromisoa lantzea...)

• **Zein da, nire ustez, Jainkoaren deia niretzat, guretzat, gure alkartearentzat, gure eliz errealitatearentzat?**

- **Zer egin barririk gure inguruan?**
- **Zer aldatu?**

- **Zer itxi alde batera?**
- **Eta elizbarrutian?**

• **Aurrekoetatik zerk sortzen dau bakea niregan eta zerk jartzen nau bildurti edo urduri?**

EVANGELII GAUDIUM IDAZKITIK

Bihotz-berritze pastoral eta misiolariaren bidean aurrera egin ahal izan dezaten eta gauzak dauden bezala gera ez daitezen, elkarte guztiek behar diren pausoak ematea espero dut. Jada ez digu balio «administratze huts» bateg. Eratu gaitezen lurreko herrialde guztietan «misio egoera iraunkorrean» (25).

Dena eraldatzeko gai den hautu misiolari batekin amets egiten dut: ohiturak, erak, ordutegiak, hizkera eta eliz egitura osoa, bere buruaren babeserako baino gehiago, egungo munduaren ebanjelizatzerako bide egoki bihur daitezen. Pastoral bihotzberitzeak eskatzen duen egituraren erreforma era honetan bakarrik uler daiteke: egitura guztiak misiolariagoak bihur daitezen saiatu, ohiko pastoraltza bere alor guztietan hedakorragoa eta irekiagoa izan dadin, pastorgile guztiak etengabeko irteera-jarreraz bete ditzan eta, honela, Jesusek, bere adiskidetasunera gonbidatzen dituen guztien baiezkoa bidera dezan (27).

Misio-erako pastoraltzak alde batera utzi nahi du «beti honela eginda» esatearen irizpide pastoral eroso. Elkarre bakoitzak ebanjelizatzeke dituen helburuak, egiturak, moldeak eta moduak berriz pentsatzerakoan, ausartak eta sormendunak izateko gonbidapena egiten dizuet denoi (33).

Inork ez luke esan behar pobreengandik urrun manten-